

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN SAILA

#### **392/2021 Foru Agindua, urriaren 18koa, baimentzen duena Lara Salceda Villaumbralesen bitarteko izendapena Kanpezuko Udaleko idazkari lanposturako**

Kanpezuko Udaleko idazkaritza lanpostuaren titularra, Miguel Ángel Olveira Barral, zerbitzu eginkizunetan dago Trapagarango Udalean 2020ko ekainaz geroztik. Horregatik, Udalak 2020ko ekainaren 5eko ALHAOn (63. zk.) argitaratu zuen lanpostu hori estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionario batek betetzeko iragarkia, behin-behineko izendapenaren bidez edo martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikuluan eta hurrengoetan jasoriko beste edozein hornidura moduren bidez.

Udalak jakinarazi duenez, eskaerak egiteko epea igarota, hautagai batek ere ez zuen lanpostu hori eskatu.

Horregatik, IVAPi eskatu zion bere lan poltsako hautagai bat bidaltzeko, bitarteko gisa izenda zezaten, baina erakunde horrek erantzun zuen ez zeukala lanpostu hori betetzeko pertsonarik.

Horrela, bada, ekainaren 19ko 86/2020 Foru Aginduaren bidez, behin-behineko izendapena egin zitzaion Puy Uriarte García udal horretako funtzionarioari, idazkari lanpostuari dagozkion eginkizunak bete zitzaion.

Aurtengo urriaren 14an sartu zen udal horrek egindako eskaera, Lara Salceda Villaumbrales bitarteko funtzionario izendatzeko. Zuzenbideko gradudun titulua dauka eta euskararen C1 titulua egiaztatuta du; Guardiako Udalak sortu eta Kanpezukoari utzi zion lan poltsa batetik dator.

Gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioen lege araubidea arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 53. artikuluan lehenengo apartatua hau xedatzen du:

“1. Ezinezkoa denean gordetako lanpostuak estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioen bidez betetzea, eta urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak 10.4 artikuluan xedatutakoa gorabehera, toki korporazioek autonomia erkidegoari proposatu ahal izango diote, betiere berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate irizpideak betez, bitarteko funtzionario bat izenda dezala, zeinak A1 azpitaldera sartzeko eskatutako titulua eduki beharko baitu.”

Hala, Udalak Lara Salceda Villaumbrales proposatu du aipatutako lanpostua betetzeko, A1 azpitaldera sartzeko eskatzen den titulua baitu eta proposatutako lanpostua betetzea onartu baitu 2021eko urriaren 18tik aurrerako ondorioekin.

Nolanahi ere, aintzat hartu behar da aipatutako errege dekretuak 54. artikuluan lanpostua betetzearen edo lanera itzultzearen ondorioei buruz xedatutakoa:

“Baldin behin-behineko edo bitarteko funtzionario batek betetzen badu lanpostua, hura lanpostutik kentzea ekarriko dute, automatikoki, honako hauek: lanpostua behin betiko betetzeak, kapitulu honetan jasotako kasuetan titularra lanera itzultzeak edo behin-behineko izendapen bat, zerbitzu eginkizunetakoa edo metaketa bidezkoa, egiteak.”

Bat etorritik estatu osorako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 53. artikuluan xedatutakoarekin.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren 52/1992 Foru Arauren 40. artikuluan jasotzen diren eskudantzien ondorioz, eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. 2021eko urriaren 18tik aurrerako ondorioekin, Lara Salceda Villaumbrales izendatzea, Kanpezuko Udaleko idazkaritza lanpostua bitarteko funtzionario gisa betetzeko.

Bigarrena. Izendapen horrek iraungo du harik eta lanpostuaren titularra lanpostura buel-tatu edo lanpostua behin betiko bete arte, hargatik eragotzi gabe lehenago edozein unetan izendapena ezeztatzea Kanpezuko Udalak eskatuta, edo lanpostutik kendu beharra horretarako legezko kausaren bat tarteko.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea Kanpezuko Udalari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta hura ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena. Jakinarazten zaizun foru agindu hau behin betikoa da administrazio bidean, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakezu zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoaren arabera. Edonola ere, lehenago aukerako erreklamazioa jar daiteke.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 18a

*Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua*  
**IRMA BASTERRA UGARRIZA**

*Lurralde Orekaren zuzendaria*  
**JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA**